

Aitzoli agurra

Euskaldunon Egunkaria, 1990-12-06: 2.

Agur zuri, Jose Ariztimuño, "Aitzol".

Izenez bakarrik ezagutzen zintugun orain gutxi zure lan osoak bildu eta gero zure mezuaz jabetu garen arte. Ez zinen, hain gazte eta hain itxaropentsu, alferrik sakrifikatu, alafede!. Nekez egindako bidez gero tratu gaiztoa nozitu zenuen eta azkenik ankerrek gorrotoz bizi osoa kobratu zizuten zure euskal poesiaren bengantzan.

Beste ametsen artean Euskal Herriarentzat euskal egunkari bat nahi zenuen, eta horretarako milioi erdi bat pezetaren eskean ibili zinen, abertzaleok aginterik eta dirurik ez genuen hartan. Zeuk bazenekien, "Lizardi"k bezala, egunkari euskaldun hori behar zuela euskarak, hau eguneroko notizien argitan piztuko bazen: euskaldun analfabetoak bere hizkuntzan irakurtzen ohitu zitezten eta hortik eguneroko eskaileretatik liburu eta jakintzara igo zitezten.

Orduko milioi erdiaren beharra, gaur milioi askoren beharra bihurtu da. Garestitu da dena! Ez hainbat diruz, halere, sosez horni baigara, baizik eta abertzaletasunez, hontatik gara eta txirotu. Pobrezia hontaz behea jota gabiltz Madrilen. Baina fededun zarenez, poz bat kitagarri: euskal EGUNKARIA jaio zaigu 1989ko Gabonetarako estalpetxo honetan.

Hemendik, zeuri eskerrak, eta Agur t'erdia.